BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3899

EBAZPENA, 2015eko irailaren 8koa, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariarena, Euskadin kokatuta dauden osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan laguntza jasotzen duten pazienteen segurtasun-neurriei buruzko Dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Osasun Sailak Dekretu-proiektu bat egin du, Euskadin kokatuta dauden osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan laguntza jasotzen duten pazienteen segurtasun-neurriei buruzkoa, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak xedatutakoaren arabera izapidetzen ari dena.

Aipatu lege-xedapeneko aurreikuspenak betetzearren, Osasuneko sailburuak, 2015eko uztailaren 30eko Aginduaz, proiektuari aldez aurretiko onarpena eman dio, testuko artikuluak idatzi ondoren.

Aipatu 8/2003 Legearen 8.1 artikuluaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoei eragiten dieten xedapen orokorrak entzunaldiaren izapidetik pasako dira, eta, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurreko informazioaren izapidetik pasako dira, kasu honetan gertatzen den legez.

Horretarako, Euskadin kokatuta dauden osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan laguntza jasotzen duten pazienteen segurtasun-neurriei buruzko Dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 20 egun balioduneko epean.

Azaldutakoagatik, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 195/2013 Dekretuko 6.1 epigrafeak xedatutakoarekin bat etorriaz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadin kokatuta dauden osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan laguntza jasotzen duten pazienteen segurtasun-neurriei buruzko Dekretu-proiektua jendaurreko erakustaldiaren izapidetik pasatzea; horretarako, 20 egun balioduneko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hara.

Bigarrena.– Goragoko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal ditzaten, dekretu-proiektuaren edukia eskura egongo da helbide honetan: Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz; halaber, eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan: Euskadi.eus

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 8a.

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.